den, ibilgailua lanerako beharrezkoa den ala ez Saileko Zerbitzu Zuzendaritzak justifikatu beharko du.»

7.– 17. artikuluko azken paragrafoko lehenengo esaldia, gizarte-funtsari buruzkoa:

«160.000 euroko diru-funts bat eratuko da.»

ficado por la Dirección de Servicios del Departamento, el importe del préstamo podrá ascender hasta 5.800 euros, siendo el plazo máximo de reintegro de 36 mensualidades.»

7.– Primera frase del párrafo primero del artículo 17, sobre fondo social:

«Se constituirá un fondo económico dotado de 160.000 euros.»

## JUSTIZIA, LAN ETA GIZARTE SEGURANTZA SAILA

## Zk-1313

AGINDUA, 2004ko urtarrilaren 8koa, Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza sailburuarena, Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza Sailak eta horri atxikitako erakunde autonomoak kudeatutako fitxategi automatizatuak, datu pertsonalenak, arautzen dituena.

Justizia sailburuaren 1994ko azaroaren 21eko Aginduaren bitartez (abenduaren 14ko EHAA, 236. zk.), Justizia Sailean ziren fitxategi automatizatuak, datu pertsonalenak, arautu ziren.

Geroztik, sailak beste jarduera-arlo batzuk hartu zituenez gero, datu pertsonalen fitxategi automatizatuak arautu eta handiagotu beharra sortu zen, eta, hartarako, Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza sailburuaren 1996ko azaroaren 14ko Agindua eman zen (abenduaren 3ko EHAA, 233. zk.).

Datu pertsonalen tratamendu automatizatua arautzeari buruzko urriaren 29ko 5/1992 Lege Organikoarekin bat etorriaz eman ziren aipatu xedapenak. Datu pertsonalak babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoaren bitartez indargabetu egin zen 5/1992 Lege Organikoa.

Azken lege horren 20.1 artikuluan xedatzen denez, administrazio publikoen fitxategiak honelaxe bakarrik aldatu eta kendu daitezke: Estatutuko Aldizkari Ofizialean edo aldizkari ofizial egokian argitaratutako xedapen orokorrekin.

Bestalde, titularitate publikoko fitxategien arduradun diren administrazio publikoei ondoko obligazioa ezartzen die aipatu legearen xedapen gehigarrietariko lehenengoak: delako legea baino lehenago zeuden fitxategiak arautzeko xedapenak egokitzekoa.

## DEPARTAMENTO DE JUSTICIA, EMPLEO Y SEGURIDAD SOCIAL

## N°-1313

ORDEN de 8 de enero 2004, del Consejero de Justicia, Empleo y Seguridad Social por la que se regulan los ficheros automatizados con datos de carácter personal gestionados por el Departamento de Justicia, Empleo y Seguridad Social y el Organismo Autónomo adscrito al mismo.

Mediante Orden de 21 de noviembre de 1994, del Consejero de Justicia (BOPV n.º 236, de 14 de diciembre), se regularon los ficheros automatizados con datos de carácter personal existentes en el Departamento de Justicia.

Posteriormente, la asunción de nuevas áreas de actuación por parte del Departamento derivó en la necesidad de ampliar y regular los ficheros automatizados con datos de carácter personal dictándose la Orden de 14 de noviembre de 1996, del Consejero de Justicia, Economía, Trabajo y Seguridad Social (BOPV n.º 233 de 3 de diciembre).

Las citadas disposiciones fueron dictadas al amparo de la Ley Orgánica 5/1992, de 29 de octubre, de regulación del tratamiento automatizado de los datos de carácter personal, norma que ha sido derogada por la Ley Orgánica 15/1999, de 13 de diciembre, de Protección de Datos de carácter personal.

El artículo 20.1 de esta Ley dispone que la creación, modificación o supresión de los ficheros de las Administraciones Públicas sólo podrán hacerse por medio de disposición general publicada en el Boletín Oficial del Estado o Diario Oficial correspondiente.

Por su parte, la Disposición Adicional Primera de esta Ley establece la obligación, para las administraciones públicas responsables de ficheros de titularidad pública, de adaptar las disposiciones de regulación de ficheros preexistentes a la citada Ley Orgánica.

Horretaz gain, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren sailen egitura berrantolatzeek ere delako egokitzapena beharrezko egiten dute, eta, halaber, Administrazioaren sailei esleitu zaizkien eskumenek ere.

Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazioko sailak sortu, ezabatu eta aldatzeko eta horien egitekoak eta jardun-arloak finkatzeko, lehendakariak emandako 1/1999 Dekretuaren —urtarrilaren 4aren— bitartez, sail honen zenbait eskumen Ogasun eta Herri Administrazio sailak bereganatu zituen: ekonomia-plangintzaren, azterlan eta metodo ekonomikoen eta estatistikaren arloetan sail honek dituen eskumenak hain justu ere. Halaber, dekretu horren bitartez, Euskal Estatistika Erakunde autonomoa Ogasun eta Herri Administrazio Sailari atxiki zitzaion.

Bestalde, sailak sortu, ezabatu eta aldatu eta horien egitekoak eta jardun-arloak finkatzeko, lehendakariak emandako uztailaren 16ko 7/2001 Dekretuaren —19/2001 Dekretuak emandako idazketa dunaren— bitartez, ondoko arloetako eskumenak Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailak bereganatu zituen: drogamenpekotasunak, inmigrazioa, boluntariotza, ongizatea eta gizarte-zerbitzuak.

Ondorioz, datu pertsonalen beste fitxategi automatizatu batzuk hartzeko beharrizana dagoenez, eta, halaber, lehendik dauden batzuk egokitzekoa eta eraginik gabeko fitxategiak kentzekoa ere, bada, hiritarrentzako argitasun eta segurtasun juridikoaren alde egitearren, bidezko da guztiak batzea xedapen honetan, horren edukia abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoan xedatukoari egokituaz.

Eta hori dela-eta, honako hau

XEDATU DUT:

*1. artikulua.–* Helburua.

1.– Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza Sailak eta horri atxikitako OSALAN, Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakunde autonomoak kudeatutako fitxategi automatizatuak, hain justu ere datu pertsonalenak arautzea da agindu honen helburua. Fitxategi horrek I. eta II. Eranskinetan zehazten dira.

2.– Datu pertsonalak babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoaren 20.2 artikuluarekin bat etorriaz, ondoren zehaztutakoak, fitxategietariko bakoitzari dagokionez, agindu honen I. eta II. Eranskinetakoak izango dira: fitxategien helburuak eta aurreikusitako erabilerak, datu pertsonalak nortzuengandik eta zein kolektiboetatik lortu nahi diren, nortzuk duten datu pertsonalak emateko obligazioa, datuak biltzeko prozedurak, fitxategien oinarrizko egiturak, datu moten deskribapenak, datuen lagapen aurrei-

Además, esta necesidad de adaptación viene dada por las sucesivas reordenaciones de la estructura departamental de la Administración de la Comunidad Autónoma de Euskadi y por las distintas asignaciones competenciales entre los Departamentos de la misma.

En este sentido, a través del Decreto 1/1999, de 4 de enero, del Lehendakari, de creación, supresión y modificación de los Departamentos de la Administración de la Comunidad Autónoma del País Vasco y de determinación de funciones y áreas de actuación de los mismos, las competencias de este Departamento en materia de planificación económica, estudios y métodos económicos, y estadística, fueron asumidas por el Departamento de Hacienda y Administración Pública. Asimismo, por medio de este Decreto el organismo autónomo administrativo Instituto Vasco de Estadística fue adscrito al Departamento de Hacienda y Administración Pública.

Por su parte, a través del Decreto 7/2001, de 16 de julio, del Lehendakari, de creación, supresión y modificación de los Departamentos y determinación de funciones y áreas de actuación de los mismos, en su redacción dada por el Decreto 19/2001, de modificación del anterior, las competencias de este Departamento en materia drogodependencias, inmigración, voluntariado, bienestar y servicios sociales fueron asumidas por el Departamento de Vivienda y Asuntos Sociales.

En consecuencia, habiendo surgido la necesidad de incorporar nuevos ficheros automatizados con datos de carácter personal, adecuar algunos de los ficheros existentes y eliminar los ficheros inoperativos, procede, en aras a la claridad y seguridad jurídica de los ciudadanos, aunarlos todos en la presente disposición adecuando su contenido a lo previsto en la Ley Orgánica 15/1999, de 13 de diciembre.

En su virtud,

DISPONGO:

***Artículo 1.–*** Objeto.

1.– La presente Orden tiene por objeto regular los ficheros automatizados con datos de carácter personal gestionados por el Departamento de Justicia, Empleo y Seguridad Social y el organismo autónomo adscrito al mismo, Instituto Vasco de Seguridad y Salud Laboral-OSALAN, que son los que se relacionan en sus Anexos I y II.

2.– De conformidad con el artículo 20.2 de la Ley Orgánica 15/1999, de 13 de diciembre, de Protección de Datos de Carácter Personal, las finalidades de los ficheros y los usos previstos para los mismos, las personas o colectivos sobre los que se pretenda obtener datos de carácter personal o que resulten obligados a suministrarlos, los procedimientos de recogida de los mismos, las estructuras básicas de los ficheros y la descripción de los tipos de datos, las cesiones de datos previstas, los órganos de la Administración responsables de

kusiak, fitxategien ardura duten Administrazioko organoak, aurka egiteko, ezerezteko, zuzentzeko eta sarbidea izateko eskubidea zein unitate eta zerbitzutan baliatu ahalko den, eta maila zehaztuaz —oinarrizkoa, ertaina eta handia— segurtasun-neurriak.

*2. artikulua.–* Fitxategiak, sortzea, aldatzea eta ezereztea.

Agindu honen I., II. eta III. Eranskinetan zehaztutako fitxategi automatizatuak, datu pertsonalenak, sortu, aldatu eta ezereztu egiten dira, betiere Datu pertsonalak Babesteri buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoan finkatutako baldintzekin eta zehaztapenekin bat etorriaz.

*3. artikulua.–* Segurtasun- eta kudeaketa-neurriak.

Sortu ziren helburuetarako erabiltzeko, datu pertsonalen segurtasuna bermatzeko, eta datuok ez aldatzeko, ez galtzeko eta baimenik gabekoek ez eskuratzeko, fitxategien organo arduradunen titularrek neurri egokiak hartu beharko dituzte; eta, halaber, abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoan eta lege hori garatzeko arauetan errekonozitutako obligazioak eta eskubideak gauzatzeko.

*4. artikulua.–* Datuak lagatzea.

1.– Fitxategi bakoitzari dagokionez, agindu honen I. eta II. Eranskinean zehaztutako datu-lagapenen kontra egin gabe, Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza Sailaren eta bere erakunde autonomoaren eremuan fitxategietako datuak laga egin daitezke, betiere ondokorako bada: eskumenen eta antzeko gaien ginekoak izanik ordenamendu juridikoak esleitutako funtzioak betetzeko hain justu ere.

2.– Halaber, Euskal Autonomia Erkidegoaren Estatistikari buruzko apirilaren 23ko 4/1986 Legean xedatutakoarekin bat etorriaz eta bai Estatistika Funtzio Publikoari buruzko maiatzaren 9ko 12/1989 Legerekin ere, Euskal Autonomia Erkidegoko Herri Administrazioaren eta beste herri-administrazio batzuen estatistika-organo eta -zerbitzuei lagako ahalko zaizkie datuak.

*5. artikulua.–* Datuak tratatzeko zerbitzuak ematea.

Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza Sailaren eta bere erakunde autonomoaren izenean datu pertsonalak tratatzeko zerbitzuak egiten dituztenek, tratamenduaren arduradunaren jarraibideekin bat, egin beharko dituzte esleitutako funtzioak, eta hala jaso beharko da hartarako egin dadin kontratuan; eta ezin izango dira erabili edo aplikatu beste helburu baterako, eta ezin izango zakizkie jakitera eman beste pertsonei batzuei, ezta euren kontserbazioa egiteko ere, betiere abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoaren 12. artikuluan xedatutakoarekin bat etorriaz.

los ficheros, los servicios o unidades ante los que podrán ejercitarse los derechos de acceso, rectificación, cancelación y oposición, y las medidas de seguridad con indicación del nivel básico, medio o alto exigible serán, en concreto, y para cada uno de los ficheros, los que se indican en los Anexos I y II a la presente Orden en relación con los mismos.

*Artículo 2.–* Creación, modificación y supresión de ficheros.

Se crean, modifican y suprimen los ficheros automatizados con datos de carácter personal que se relacionan respectivamente en los Anexos I, II y III de la presente Orden, en los términos y condiciones fijados en la Ley Orgánica 15/1999, de 13 de diciembre, de Protección de datos de carácter personal.

*Artículo 3.–* Medidas de seguridad y gestión.

Los titulares de los órganos responsables de cada fichero adoptarán las medidas necesarias que garanticen el uso de dichos ficheros para las finalidades para las que fueron creados y la seguridad de los datos de carácter personal, y eviten su alteración, pérdida, tratamiento o acceso no autorizado, así como las conducentes a hacer efectivas las garantías, obligaciones y derechos reconocidos en la Ley Orgánica 15/1999, de 13 de diciembre, y sus normas de desarrollo.

*Artículo 4.–* Cesiones de datos.

1.– Sin perjuicio de las cesiones de datos que, en relación con cada fichero, se prevén en los Anexos I y II a la presente Orden, los datos incluidos en los mismos podrán ser cedidos, en el ámbito del Departamento de Justicia, Empleo y Seguridad Social y su Organismo Autónomo, para el cumplimiento de las funciones que les encomienda el ordenamiento jurídico y versen sobre competencias y materias similares.

2.– Asimismo, podrán ser cedidos a los órganos y servicios de estadística de la Administración Pública de la Comunidad Autónoma de Euskadi y de otras Administraciones Públicas, al amparo de lo dispuesto en la Ley 4/1986, de 23 de abril, de Estadística de la Comunidad Autónoma de Euskadi y en la Ley 12/1989, de 9 de mayo, de la Función Estadística Pública.

*Artículo 5.–* Prestación de servicios de tratamiento de datos.

Quienes, por cuenta del Departamento de Justicia, Empleo y Seguridad Social y su Organismo Autónomo presten servicios de tratamiento de datos de carácter personal realizarán las funciones encomendadas conforme a las instrucciones del responsable del tratamiento y así se hará constar en el contrato que a tal fin se realice, no pudiendo aplicarlos o utilizarlos con fin distinto, ni comunicarlos, ni siquiera para su conservación, a otras personas, de conformidad con lo dispuesto en el artículo 12 de la Ley Orgánica 15/1999, de 13 de diciembre.

*6. artikulua*.– Aurka egiteko, ezerezteko, zuzentzeko eta sarbidea izateko eskubideak baliatzea.

Aurka egiteko, ezerezteko, zuzentzeko eta sarbidea izateko eskubideez baliatu daitezke fitxategi automatizatuek eragiten dietenak, bidezko denean eta agindu honen I. eta II. eranskinean fitxategi automatizatu bakoitzarentzat zehaztutako unitate edo zerbitzuaren aurrean.

XEDAPEN INDARGABETZAILEA. ARAUAK INDARGABETZEA.

Ondoko xedapen eta aginduak indargabetu egiten dira: Justizia Sailean diren fitxategi automatizatuak, datu pertsonalenak, arautzen dituen Agindua, Justizia sailburuarena, 1994ko azaroaren 21ekoa; Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioko Justizia, Ekonomia, Lan eta Gizarte Segurantza Sailak eta sail horri atxikitako erakunde autonomoek kudeatutako fitxategi automatizatuak, datu pertsonalenak, arautzen dituen Agindua, Justizia, Ekonomia, Lan eta Gizarte Segurantza sailburuarena, 1996ko azaroaren 14koa, eta agindu honen mailako edo beheragokoa izanik, agindu honen edukiari kontra egiten dion xedapen oro.

AZKEN XEDAPENA

*Lehenengoa*.– Datuak Babesteko Erregistro Orokorrean fitxategiak inskribatu, aldatu eta indargabetzea.

Hartarako prestatutako modelo normalizatu bat erabiliaz, Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza Saileko Zerbitzu Zuzendaritzak xedapen honen kopia helarazi beharko dio Datuak Babesteko Agentziari, hain justu ere Datuak Babesteko Erregistro Orokorrean inskriba ditzan datu pertsonalen fitxategi automatizatu berriak, eta, halaber, lehendiko fitxategien aldaketak edo ezerezteak inskriba ditzan.

*Bigarrena*.– Indarra noiz hartuko duen.

Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunean hartuko du indarra agindu honek.

Vitoria-Gasteiz, 2004ko urtarrilaren 8a.

Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza sailburua,
JOSEBA AZKARRAGA RODERO.

**Ale Gehigarri bereizian argitaratzen dira aipaturiko Eranskinak**

*Artículo 6*.– Ejercicio de los derechos de oposición, acceso, rectificación y cancelación.

Los afectados por los ficheros automatizados podrán ejercitar su derecho de oposición, acceso, rectificación y cancelación de datos, cuando proceda, ante la Unidad o Servicio que para cada fichero automatizado se determina en los Anexos I y II de la presente Orden.

DISPOSICIÓN DEROGATORIA. DEROGACIÓN NORMATIVA

Quedan derogadas la Orden de 21 de noviembre de 1994, del Consejero de Justicia, por la que se regulan los ficheros automatizados con datos de carácter personal existentes en el Departamento de Justicia, y la Orden de 14 de noviembre de 1996, del Consejero de Justicia, Economía, Trabajo y Seguridad Social, por la que se regulan los ficheros automatizados con datos de carácter personal gestionados por el Departamento de Justicia, Economía, Trabajo y Seguridad Social de la Administración General de la Comunidad Autónoma del País Vasco y los Organismos Autónomos adscritos al mismo, así como cualquier otra disposición de igual o inferior rango que se oponga al contenido de esta Orden.

DISPOSICIONES FINALES

*Primera*.– Inscripción, modificación y cancelación de los ficheros en el Registro General de Protección de Datos.

La Dirección de Servicios del Departamento de Justicia, Empleo y Seguridad Social dará traslado a la Agencia de Protección de Datos, a través del modelo normalizado elaborado al efecto, de una copia de la presente disposición para que proceda a la inscripción en el Registro General de Protección de Datos de los ficheros automatizados con datos de carácter personal de nueva creación, así como a la modificación o, en su caso, cancelación de la inscripción de los ya creados.

*Segunda*.– Entrada en vigor.

La presente Orden entrará en vigor el día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

En Vitoria-Gasteiz, a 8 de enero de 2004

El Consejero de Justicia, Empleo y Seguridad Social,
JOSEBA AZKARRAGA RODERO.

**En Suplemento aparte se publican los Anexos que se citan**